Bestelako Xedapenak

NEKAZARITZA, ARRANTZA ETA ELIKADURA SAILA

693

AGINDUA, 2009ko urtarrilaren 13koa, Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuarena, «Gernikako piperra / Pimiento de Gernika» jatorrizko deitura eta horren araudia onartzen duen agindua aldatzen duena, 510/2006 zenbakiko erregelamenduan (EE) aurreikusitako behin-behingo izaeraz.

2007ko maiatzaren 17an Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2007ko otsailaren 7ko Agindua argitaratu zen Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 94. zenbakian. Agindu horrek «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» jatorrizko deitura eta horren araudia onartzen du, 510/2006 zenbakiko Erregelamenduan (EE) aurreikusitako behin-behingo izaeraz.

Agindu horretan zehaztutakoa aplikatzerakoan antzeman da pimiento de gernika / gernikako piperra ekoizteko gai diren udalerrien mapa ez datorrela bat aginduaren I. eranskineko 6. artikuluan eta II. eranskineko C.1. atalean azaltzen diren udalerriekin. Horrela, Arabako Lautadako Asparrena eta Zalduondo udalerriei egiten zaien aipua kendu behar da eranskin horietatik udalerri horiek ez baitituzte betetzen nekazaritza eta klimaren aldetik Gernikako piperra ekoizteko egoki diren baldintzak. Horregatik, beharrezkoa da horri dagokionez agindu hori aldatzea.

Hori guztia dela bide, ondokoa

XEDATU DUT:

Lehenengo artikulua.– 510/2006 zenbakiko Erregelamenduan (EE) aurreikusitako behin-behingo izaeraz, «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» jatorrizko deitura eta horren araudia onartzen duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2007ko otsailaren 7ko Aginduaren I. eranskineko 6. artikulua («Ekoizpen-eremua») aldatu eta honela geratu da:

> «Piperrak 585 mm baino gehiagoko benetako ebapotranspirazioko indizea duten Euskal Autonomia Erkidegoko klima Atlantikoko eremuetan ekoitziko dituzte. Indize hori Gipuzkoan eta Bizkaian eta Arabako hurrengo eremu hauetan dago: Arabako Eremu kantauriarrak, hurrengo udalerri hauek hartzen dituena: Aiara, Okondo, Laudio, Amurrio eta Artziniega; Gorbeialdeko eremua, Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, Legutiano eta Aramaioko udalerriak».

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE AGRICULTURA, PESCA Y ALIMENTACIÓN

693

ORDEN de 13 de enero de 2009, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, de modificación de la orden por la que se aprueba la denominación de origen protegida «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» y su reglamento, con el carácter transitorio previsto en el Reglamento (CE) número 510/2006.

El 17 de mayo de 2007 se publicó en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 94 la Orden de 7 de febrero de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se aprueba la denominación de origen protegida «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» y su reglamento, con el carácter transitorio previsto en el Reglamento (CE) núm. 510/2006.

Puesto en aplicación lo dispuesto en la citada disposición se ha advertido una discordancia entre el mapa de los municipios aptos para la producción de pimiento de gernika/gernikako piperra y los municipios que figuran en el artículo 6 del anexo I a la Orden y en el apartado C.1 del anexo II a la Orden. Así, debe suprimirse de los anexos la mención a los municipios de Asparrena y Zalduondo de la Llanada Alavesa porque estos municipios no cumplen las condiciones agroclimáticas para la producción del pimiento de Gernika. Por ello, es preciso proceder a la modificación de la citada disposición en tal sentido.

En base a todo lo expuesto,

DISPONGO:

Artículo primero.– Se modifica el artículo 6, «Zona de Producción», del anexo I la Orden de 7 de febrero de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se aprueba la Denominación de Origen Protegida «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» y su Reglamento, con el carácter transitorio previsto en el Reglamento (CE) núm. 510/2006, que quedará redactado como sigue:

> «Los pimientos se producirán en aquellas zonas de clima Atlántico de la Comunidad Autónoma del País Vasco que cuenten con un índice de evapotranspiración real superior a 585 mm. Este índice coincide con las provincias de Gipuzkoa y Bizkaia y las siguientes zonas de Álava: zona Cantábrica Alavesa, que comprende los municipios de Ayala, Okondo, Llodio, Amurrio y Artziniega; Zona de Estribaciones del Gorbea, municipios de Urkabustaiz, Zuya, Zigoitia, Legutiano y Aramaio».

Bigarren artikulua.– 510/2006 zenbakiko Erregelamenduan (EE) aurreikusitako behin-behingo izaeraz, «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» jatorrizko deitura eta horren araudia onartzen duen Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburuaren 2007ko otsailaren 7ko Aginduaren II. eranskineko C.1. artikulua («Ekoizpen-eremua») aldatu eta honela geratu da:

«Piperrak 585 mm baino gehiagoko benetako ebapotranspirazioko indizea duten Euskal Autonomia Erkidegoko klima Atlantikoko eremuetan ekoitziko dituzte. Indize hori Gipuzkoan eta Bizkaian eta Arabako hurrengo eremu hauetan dago: Arabako Eremu kantauriarrak, hurrengo udalerri hauek hartzen dituena: Aiara, Okondo, Laudio, Amurrio eta Artziniega; Gorbeialdeko eremua, Urkabustaiz, Zuia, Zigoitia, Legutiano eta Aramaioko udalerriak».

AZKEN XEDAPENA

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko urtarrilaren 13a.

Nekazaritza, Arrantza eta Elikadura sailburua,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.

Artículo segundo.– Se modifica el apartado C.1 «Zona de producción» del anexo II a la Orden de 7 de febrero de 2007, del Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación, por la que se aprueba la Denominación de Origen Protegida «Gernikako Piperra / Pimiento de Gernika» y su Reglamento, con el carácter transitorio previsto en el Reglamento (CE) núm. 510/2006, que quedará redactado como sigue:

«Los pimientos se producirán en aquellas zonas de clima Atlántico de la Comunidad Autónoma del País Vasco que cuenten con un índice de evapotranspiración real superior a 585 mm. Este índice coincide con las provincias de Gipuzkoa y Bizkaia y las siguientes zonas de Álava: zona Cantábrica Alavesa que comprende los municipios de Ayala, Okondo, Llodio, Amurrio y Artziniega, Zona de Estribaciones del Gorbea, municipios de Urkabustaiz, Zuya, Zigoitia, Legutiano y Aramaio».

DISPOSICIÓN FINAL

La presente Orden entrará en vigor el día siguiente al de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.

En Vitoria-Gasteiz, a 13 de enero de 2009.

El Consejero de Agricultura, Pesca y Alimentación,
GONZALO SÁENZ DE SAMANIEGO BERGANZO.